

# elkar

UDABERRIA 2020
59. ZENBAKIA

www.elkar.eus

# GARBIÑE UBEDA

*Lekukoa* trilogia
Gazteak, *thriller* bateko protagonista

\+

## ERIKA ELIZARI
*Zendabalitz*, estraineko lana

## ÁLVARO ARBINA
*Los solitarios*, suspense con fondo blanco

## IZEN PROPIOAK:
Karlos Gorrindo · Almudena Grandes · Aingeru Epaltza · John Andueza · Unai Ormaetxea
Irati Jimenez · Antton Olariaga · Asier Iturralde *Gastón* · Aritz Gorrotxategi · Javier Rojo

8435226178981

iRRIEN LAGUNAK

# EGIN HARPIDETZA!

## ETA JASO ELKAR DENDETAN ERABILTZEKO 10€-KO BONOA!

**Baliatu gure eskaintza berezia eta jaso urtean iRRiAren 10 ale etxean!!**

URTEAN 49€






HARPIDETZA EGITEKO AUKERAK:

Telefonoz: **902 820 806** zenbakira deituz
E-posta: **harpidetza@irrienlagunak.eus** helbidera idatziz.
**www.irrienlagunak.eus/harpidetza**-n izena emanaz.




GASTÓN (Asier Iturralde)



Kultura sarean

Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan

@elkar
@elkar
postdata.elkar.eus
flickr elkartaldea
elkarTaldea

elkar
www.elkar.eus

elkar liburu-dendak

**ALGORTA (GETXO)** Telletxe 11 94 491 66 16
**ARRASATE** Erdikokale 14 943 79 78 29
**BAIONA** Arsenal plaza 559 59 35 14
**BASAURI** Dr. Jose Garai 11 94 426 13 84
**BERGARA** Ibargarai 7 943 76 40 50
**BILBO** Licenciado Poza 14 94 443 47 08
Iparragirre 26 94 424 02 28
Zamudioko ataria Zazpikale 94 416 14 50
**DONOSTIA** Fermin Calbeton 21 943 42 00 80
Bergara 6 943 42 63 50
**GASTEIZ** San Prudencio 7 945 14 45 01
Apraiztarrak 1 Campus 945 14 16 70
**HERNANI** Kale Nagusia 30 943 55 15 37
**IRUN** Colon pasealekua 8 943 63 17 26
**IRUÑEA** Comedias 14 948 22 41 67
Leire 9 948 17 55 38
**TOLOSA** Arostegieta z/g 943 67 35 33







2020
LORALDIA
FESTIBALA HAMAIKA DESIRA!
MARTXOAREN 10ETIK 29RA
WWW.LORALDIA.EUS



*“Batzuetan anestesiatuegi gaudela iruditzen zait”*







**SASIESKOLA**
Garbiñe Ubeda
ELKAR

**MEHATXUA**
Garbiñe Ubeda
ELKAR

# GARBIÑE UBEDA

**_Lekukoa_ izeneko trilogia idazteari ekin zion Garbiñe Ubedak duela bi urte. Nerabeei zuzendutako bilduma horren bigarren liburua, _Mehatxua_, jada kalean da, eta idazle tolosarrarekin hitz egitera bildu gara, hirugarren alea izango dena idazten dabilen honetan.**

**_Lekukoa_ deituriko trilogiaren bigarren alea da _Mehatxua_. Istorio orokorra hiru liburutan banatu beharrak nola baldintzatu dizu idazketa prozesua?**
Bi modutara egin litezke serieak. Pertsonaia nagusi bat edo multzo bat hartu eta horientzat liburu bakoitzeko istorio bana sortuz, edo istorio konplexuago bat hiru puskatan –hiru liburutan– banatuz. Bigarren aukerari heldu nion nik. Eta horren arabera, hainbat baldintza ezarri nizkion neure buruari. Garrantzitsuena, liburuak elkarren segida izanik ere, independenteak izatea. Hau da, ordena jarraitzen ez duen irakurleak, demagun bigarrenetik hasten denak, logika bat aurkitzea irakurtzen ari den liburuari. Bigarren baldintza, amaiera aski irekia izatea, hurrengo liburua irakurtzeko gogoa piztearren. Zailena, liburu bakoitzaren oreka lortzea da: liburu bakoitzak besteekiko izan behar duen loturaren eta berez ekarri behar duen berritasunaren artean oreka egokia aurkitzea. Istorio baten tentsioa hiru liburutara hedatzea zaila da, eta estutasuna sortzen zaizu, istorio osoa bukatu aurretik argitaratu behar delako lehen liburua, eta baita bigarrena ere, eta horrek zuzenketarako aukerarik ez dizu uzten. Baina era berean, droga moduko bat da. Erronka berri bat da, eta nik halakoak behar ditut.

**Gazteei zuzendutako bilduma izateak zure idazkeran eraginik izan du?**
Nik ez ditut helduak eta hamasei urte ingurukoak sobera bereizten. Ez dute helduen ardurarik, ez eta ezagueraik



edo esperientziarik ere, baina dagoeneko helduen logika dute, salbuespenak salbuespen. Gazteentzat idaztea, niretzat, protagonista gazteak hautatu eta beroriek helduen arduren dantza horretan sartzea da. Hortik gora ez dut ezer berezirik egin, ez behintzat, esaldiak sinpletu edo hizkera egokitu edo antzekorik.

***Lekukoa*, *Mehatxua*, izenburuek nobela beltzarekin lotura adierazten dute.**
"Polizi generoa" gure egunerokoan txertatuta izan dugu. Puska bat badakigu horretaz, eta bazka non bilatu ere badugu sobera. Artean falta duguna, nolabait esateko, distantzia da. Oraindik deseroso zaigu eta autozentsura ere badago. Diskurtso nagusiak ezarritako zintzo eta gaizto bereizketatik harago jo behar delako, eta espresuki ez bada ere, memoria aldarrikatzen ari zarelako. Nobela beltzean murgildu nahi izan dudala eman badezake ere, ez dut apropos egin.

**Larraitz dugu bildumaren protagonista, hamasei urteko nerabea. Zer nolako esperientzia izan da nerabezaro betean bizi den protagonista bat eraikitzea?**
Interesgarria izan da. Nerabe baten larruan sartzea, ia hilezkor sentitzen zaren garaira itzultzea da. Dena da kemena, kateak askatzea (bereziki etxekoak), bide berriak urratzea, idealismoak bilatzea. Nerabeak sentipenen gradu gorenean daude askotan. Etsita eta ozpindu samar gaudenontzat, egin beharreko bidaia da. Baina nerabeen tokian jarrita egin behar da, guraso garela bazterrean utzita.

**Laurogeiko hamarkadan kokatu duzu istorioa. Zergatik garai horretan?**
Batetik, zintzotasunagatik. Ia hamazazpi urte dituen nerabe baten larruan sartu behar, eta errazago zitzaidalako ni nerabe izan nintzen garaira jo. Ordutik hona, teknologiaren omnipresentzia alde batera utzita, gauzak ez dira funtsean askorik aldatu: laguntasuna, inguruan enkajatu beharra, mundu bortitza, etorkizun zaila…
Bestetik, indarkeria orokortua eta autoritarismoa jarri nahi nituen nobelaren paisaian. Autoritarismoa bazter guztietan zegoen, lehertzeko zorian zegoen dena: etxean, kalean, politikan, eskolan, lanean eta nonahi.



AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIAK: ANDER GILLENEA

**Lehendabiziko nobelan, Larraitz hilketa baten lekuko zen, gerra zikinaren indarkeriaren erdi-erdian.**
Larraitz hilketa baten lekuko isila da, inor gutxik daki halakorik ikusi zuenik, eta horrek bizitza itzulipurdikatuko dio. Halako kontu bat bere kolkorako gorde beharrak antzaldatu egin du, izaeraz eta portaeraz. Inozentzia galdu du, zakartu eta zomorrotu egin da, ez du konfiantzarik transmititzen, berak ere ez dakielako konfiantza nori eman diezaiokeen eta horrek inguru eroso guztietatik kanpo utzi du.

***Mehatxua*n, amak lanera behartu du Larraitz, etxetik urrun.**
Larraitz ez da amak nahiko lukeen bezalakoa. Etengabe kuestionatzen dio amari etxean semeen eta bere artean egiten diren bereizketak. Ama injustiziazko tradizio baten oinarria da, nolabait esanda, eta haren menpetik askatu beharra dauka bere bidea egiteko. Amak neskame sentiarazten du, behar den bezalakoa izateko eta zentzatzeko neurriak hartzen dituen bakoitzean, etxeko lanak egitera behartzen duelako. Udako oporraldian, kontrola ez galtzearren, ezagun baten etxera igorri du amak (garraiolarien zerbitzurako jatetxe baten jabe dira), hango lanik gogorrenetan laguntzen jar dezaten. Autoritarismo hutsa da, ez baita lan arautu eta ordaindua, eta gainera guztiz isolatuta dago.

**Lagunik gabe geratu da...**
Lagunik gabe gelditzea beti da larria. Nerabezaroan, adiskiderik gabe ez daukagu gure izatea berresterik, ezta gure tokia zein den finkatzerik ere. Nerabezaroan familia baino garrantzitsuagoak dira lagunak, eragin handiagoa dute behintzat. Larraitzek espero ez duen tokian aurkituko du adiskide on bakarra eta salbamendu txalupari bezala helduko dio.

**Beste gai agorrezin bati ere heldu diozu: irakasle/ikasle arteko harremana. Zer bilatzen du nerabe batek irakasle batean, eta alderantziz?**
Haur eta nerabeez ari bagara, irakasleek toki garrantzitsua dute helduen eskalan. Gurasoen ostean, haiek dira nerabeen gainetik dauden lehenak, eta odol loturarik ez dagoenez, gustatu ala ez, eredu denaren edo ez denaren ispilu dira.
Kasu honetan, irakasle eta ikasle izatea zirkunstantziala da. Ikasle eta irakasle direlako ezagutzen dute elkar, baina lotu dituena hilketa da. Bat lekuko izateak eta bestea hildako baten senide izateak lotu ditu. Elkarrekin egia azaleratu beharra daukate, baina oraindik ez dakite nola. Gertaera edo lotura horrek bestea norberaren rolaz harago ikusten eta baloratzen lagunduko die. Lekukotzaren berri jakin eta gero, Larraitz jada ez da ikasle bat izango irakaslearentzat, eta alderantziz. Rolaz harago ezkutatzen den pertsona deskubritu dute batak eta besteak.

**Nola gogoratzen duzu zure nerabezaroa? Itzuliko zinateke nerabe izatera?**
Nirea oso bortitza izan zen. Itzuliko ote nintzatekeen? Alde batera sekulako nagia sortzen dit. Beste alde batetik, urrea ordainduko nuke itzultze alde, batez ere sentipenak eta bizipenak orduko intentsitatez sentitzearren. Batzuetan anestesiatuegi gaudela iruditzen zait.

**YURRE UGARTE**
Idazlea



Proposamena



**ARITZ GORROTXATEGI**
Idazlea

# ELORRIAGAREN ITURRIA

**Unai Elorriaga**ren *Iturria* hainbat galeria eta pasabide dituen eleberri ezohikoa da. Badu thrillerretik, badu literatur ikastarotik, badu kafkiarretik eta umoretsutik, badu idazkuntzari buruzko gogoetatik, adiskidetasunari egindako gorazarretik, zahartzaroari buruzko eskuliburutik, irudimenaren aldeko aldarritik... Gai da ludikotasunaren bidetik jotzeko, baina zorroztasunari uko egin gabe.

Batetik, Soro Barturen dugu, aurki 80 urte beteko dituen agure bitxi eta literaturzalea, neurri batean Bouvard eta Pécucheten kastakoa. Barturen aspaldi Ingalaterran ikaskide izan zuen Pedro Iturriaren atzetik dabil. Iturriak ipuinak idazten ditu, eta batetik bestera bizi da. Bizitoki bakoitzetik (Praga, Danimarka, Budapest, Zurich, Varsovia...) ipuin bat edo gehiago bidaltzen du herri hartako literatur-aldizkariren batera, guztiak ere herri hartako jatorrizko hizkuntzan idatziak. Soro Barturenek ipuinen aztarna jarraitzen du, Iturriarenganaino eramango duten esperantzaz. Bilaketa horretan, On Kixotek bezala, Barturenek nobelaren narratzaile lanak egiten dituen ezkutari leial bat darama alboan, Erroman adinkidea.

Iturriaren ipuinak errealistak dira doinuz, baina absurdoak eta asaldagarriak edukiz. Barturen edonorekin hasten da hizketan literaturaz eta Iturriaren ipuinez. Xehetasun guztiei erreparatzen die. Itzultzaileak "erosten" ditu, galderez josten ditu, Iturriaren biografia arakatzen du. **Elorriaga**k iradokitzen digu jolas serioa dela literatura, eta ipuinen barrunbeen sekreturaino eramaten gaitu, nahiz beti erantzunik aurkitu ez.




**ITURRIA**
Unai Elorriaga
SUSA

Profila YON ETXAIDE



**JAVIER ROJO**
EHUko irakaslea

# ZUBIGILEA

**Yon Etxaide** (1920-1998) euskal literaturak 50eko hamarraldian eskaini duen idazle garrantzitsuenetako bat izan zen, gaur egun ahaztu xamar badugu ere. Bere garaiko beste idazle askok bezala, orotariko idazlanak sortu zituen. Saiakerak, antzerki-lanak, ipuinak, nobelak eta poematxoren bat ere argitara eman zituen baina bere nobelengatik izan zen ezaguna, batez ere *Joanak joan* (1955) eta *Gorrotoa lege* (1964) izenburukoengatik. Bere jardunarekin gerra aurreko literaturaren eta 60ko hamarraldiaren arteko zubigintzan aritzea egokitu zitzaion, eta lan horretan aurreko idazleek egindakoa izan zuen erreferentzia puntutzat; bere nobeletan, esate baterako, **Txomin Agirre**ren oihartzunak aurkitzen dira. Edonola ere, aldaketak ekarri zizkion euskal literaturari, nobelagintzari bereziki. Ohiturazko narratiban agertzen zen mundu idilikoari aurrez aurre jarrita, **Etxaide**k nobeletan gatazka aurkezten zuen, historiatik hartutako gaiak lantzen zituelarik. *Joanak Joan*en **Etxahun** bertsolariaren bizitza hartu zuen lehengai moduan, familia barruko lehia erakusteko eta *Gorrotoa lege*n, nobela historikoaren kanonetik hurbilago, azaldu zuen XV. mendeko oinaztarren eta ganboatarren arteko gudak nola eraman zuen Arrasateren erreketara. Gatazka aurkezten zuen, gizakiaren alde iluna, eta gatazka aurkezteaz gain nola gaindi litekeen ere azaltzen zen eleberri horietan. Lehenengo kristauen erlijioan oinarritutako printzipio moral sendoak zituelarik, eta bere burua nahiko heterodoxotzat bazuen ere, kristautasuna funtsezko zutabea izan zen bere bizitzan (beste zutabea, euskaltzaletasuna). Kristautasun primitibo horretan aurkitu zituen gatazkak gainditzeko beharrezkoak ziren lanabesak, anaitasunaren eta barkamenaren ideietan zentratuta. **Yon Etxaide**k neurri batean idealizazioarekin apurtu zuen eta hori estimagarria gertatu zen literaturbide berrien gose ziren garai hartako irakurleentzat.



Amaia Nausia se adentra en la Edad Moderna navarra para explicar más de 500 años de adoctrinamiento femenino, que colocaba a las mujeres entre dos actitudes: entre María y Eva, entre ser vírgenes o ser putas.

txalaparta.eus



BARREN-BARRENEAN

# ZUEK GAIZTOAK, ZUEK DEBEKATUAK, ZUEK, GURE LIBURU MADARIKATUAK!



**IRATI JIMENEZ** IDAZLEA

Idazleok askotan hitz egiten dugu liburuen kontra. Ez zarete ohartu? Ez liburu *guztien* kontra, jakina. Gutxi entzun ditut *haien* liburuen kontra berba egiten, esate baterako. Baina badira idazle askok mespretxuz arbuiatzen dituzten liburuak, fijatu zarete? Lehen lerroan best sellerrak daude, jakina. Baina aspaldi honetan psikologiaren kontra hitz egiten duten idazleak ezagutu ditut –ez galdetu horrek zer esan nahi duen, ez dakit eta– eta, bereziki, autolaguntzazkoak deitzen diren liburuen aurka daudenak. Liburu debekatuak dira sail horretakoak, bada idazle bat baino gehiago gure artean harrotasunez –harrokeriaz– esan duenik ez dituela behin ere irakurri, ezta irakurriko ere.



ILUSTRAZIOA: ANTTON OLARIAGA

Ez da oso pentsamendu originala. Izan ere, liburu madarikatuen genealogia luzeetatik gatoz eta nolabaiteko jakituria eta ezagutza arbuiatzen dituzten kontakizun eta mito zaharretatik. Bibliako paradisua jakituriaren sagarra jateagatik galdu zen, egiptoarrek liburu madarikatu bat zuten, hitz guztiak asmatu zituen Thot jainkoaren eskuizkribua, eta biblioteka guztietan daude liburu debekatuen apalategi luzeak. Horietan zeuden sekretuekin ikasi zuten Sirius Black eta lagunek animalia bihurtzeko behar zuten guztia (*Harry Potter eta Azkabango presoa*, Elkar, 2001) eta hor ikasitakoaren erruz egon ziren ia-ia Severus Snape ikaskidea hiltzekotan (*Harry Potter eta Fenixaren ordena*, Elkar, 2003).

Literaturak askotan esaten digu liburuekin kontuz ibiltzeko eta mesfidantza ikaragarria ageri du zientziaren aurka. Begira komikietako zenbat superheroi diren zientifiko zoroak. DC eta Marvel unibertsoetako doktoretza programetatik atera dira Sivana Doktorea, Armin Zola doktorea, Octopus doktorea, Doom doktorea… **William Irwin** filosofoaren ustez denek adierazten dute Estatu Batuetako anti-intelektualismo tradizionala, (*Los Simpsons y la filosofía*, Blackie Books, 2009), baina mundu osoan dituzte zientifiko eroek arbaso literarioak. Hartu *Jekyll doktorearen eta Hyde jaunaren kasu bitxia* (Erein, 2019), **Koro Navarro**k euskarara ekarritako **Stevenson**en liburu bikaina, edo **Mary Shelley**ren *Frankenstein*, **Iñigo Errasti**ri esker itzulia (Erein, 2013) eta ikusiko duzue nahi gabe ere zer-nolako zitalkeria eragin dezaketen Henry eta Victor doktoreek.

Aspaldi, mitoak ziren antzeko terroreak zabaltzen zituztenak. *Frankenstein* bera *Prometeo Modernoa* azpitituluarekin argitaratu zen. Gizakiontzako ezagutza eta boterea lortu zituen Prometeok baina ordainetan Pandoraren anforan gordetako zorigaitzak sufritu behar ditugu, krimenak, eta pobrezia, eritasunak eta doloreak. Kontuz gehiegi jakitearekin, esaten digute mito zaharrek. Liburu batzuk ezin dira zabaldu, ez badugu **Umberto Eco**ren *El nombre de la rosa* zoragarrian hiltzen ziren abadeak bezala bukatu nahi (De Bolsillo, 2017).

Gizakion objektuak dira liburuak baina ez dira guztiz geureak, ezta? Liburuetan ez idazteko esaten zaigu. Ez azpimarratu! Ez tolestu! Ez zaigu esaten zergatik eta ez genuke obeditu behar. Sartu egin beharko ginateke liburu *malditoen* sailera eta lapurtu egin beharko genuke irakurri ezin dugun liburua, Bastian umeak egiten zuen moduan, **Idoia Guillene**ari esker euskaraz daukagun *Istorio amaigabea* miragarrian (Zubia, 2019). Eta zer esango dizuet idazleoi buruz. Sekula, sekula ez genuke liburutegi bateko sail oso bat madarikatu beharko, ez best sellerrena ez auto-laguntzazkoena ez beste ezein. Ezagutza demonizatzen dugulako, irakurleak iraintzen ditugulako eta ahaztu egiten dugulako literatura guztia gizakiak gizakiari idatzitako autolaguntzazko konjuro magikoa baino ez dela.




FOTOGRAFÍA: IVAN GIMÉNEZ-TUSQUETS EDITORES

# ALMUDENA GRANDES

***La madre de Frankenstein*, publicada por Tusquets, es la nueva novela de Almudena Grandes, incluida en su galdosiana serie "Episodios de una Guerra Interminable". Los protagonistas de esta historia son Germán, un joven psiquiatra, María Castejón, una mujer que perdió a su madre en la masacre que se produjo en la carretera entre Málaga y Almería, y Aurora, un personaje real que parece ficticio. Grandes, Premio Nacional de Narrativa 2018, confiesa que ha escrito este libro en memoria de todas aquellas mujeres que pasaron por infinidad de dificultades en la desesperanzada década de los cincuenta.**




**LA MADRE DE FRANKENSTEIN**
Almudena Grandes
TUSQUETS

**La historia de Aurora Rodríguez Carballeira parece increíble. ¿Le ha costado recrear un personaje tan complejo?**
Llevaba treinta años dándole vueltas al personaje. Era difícil meterse en la mente de una paranoica, porque además su voz en el libro es su pensamiento, ella no habla, solo piensa, y yo he procurado ajustarme a sus delirios. Las piezas de Aurora en el libro están construidas con información real del personaje. Era difícil, pero también, un reto y oportunidad.

**La novela entraña una reflexión sobre la libertad: las personas libres no son manipulables.**
Es importante diferenciar entre estar en libertad y ser libre. En España, durante la dictadura, había mucha gente que estaba en libertad, pero no era libre, y al contrario, gente libre que no estaba en libertad. Esa era la realidad de las dictaduras.

**Los años cincuenta fueron duros y oscuros en general, pero las mujeres trabajadoras sufrieron especialmente.**
Los años cincuenta fueron muy duros porque no había esperanza; fue una época de estancamiento total en la que floreció el nacionalcatolicismo. España se convierte en un país en el que todo es pecado y en el que todos los pecados son delito, y la vida de la gente normal, de los hombres, pero especialmente de las mujeres, se convierte en algo muy difícil porque todo es pecaminoso, todo es escandaloso.

**¿Se pueden heredar las culpas de los padres? No sé si en esto hemos mejorado mucho.**
En aquella época, la reputación de una persona dependía de la reputación de sus mayores. Y yo creo que en ese sentido si hemos mejorado: los hijos de los ricos siguen teniendo las cosas más fáciles, pero ya ha desaparecido el estigma del nacimiento que durante el franquismo hizo tan duras las vidas de tantas personas.

**El manicomio de mujeres de Ciempozuelos, donde Germán se reencuentra con Aurora, ilustra bien las desigualdades insalvables de la época.**
A mí me parecía que contar esos años tan terribles desde un manicomio de mujeres era como contar desde el margen del margen, porque las habitantes de mi novela son las personas que no le importan a nadie, en primer lugar porque son mujeres, y en segundo, porque son enfermas mentales, Así, el manicomio se convierte en un microcosmos que lo que hace es condensar la atmosfera que se respira en el macrocosmos, en el mundo exterior.

**TXANI RODRÍGUEZ**
Periodista

La entrevista completa:
http://bit.ly/madre-de-frankenstein





*“Airean denbora eten egiten da”*

# ERIKA ELIZARI

**Paristik Bilborako hegaldi gorabeheratsua. Zazpi bidaiariren bizipen eta gomutak. Barne gogoeta eta solasaldien bitartez, sekuentziaz sekuentzia osaturiko istorio bizi eta espresa. *Zendabalitz* proiektuarekin Igartza beka irabazi zuen 2018an Erika Elizari Salvadorrek. Plazan da dagoeneko.**




**ZENDABALITZ**
Erika Elizari
ELKAR

**“Hori da nire lanetik gehien gustatzen zaidana. Airean denbora eten egiten da”. Pertsonaietako batek dio, hegazkin pilotuak, hain zuzen ere. Literaturan ere denbora eten egiten al da?**
Bai. Zalantzarik gabe. Eten eta bikoiztu, biak batera. Idazten ari naizen bitartean, sortzen ari naizen mundu berri horren denbora-lerroan murgiltzen naiz bete-betean. Errealitate paralelo horretan gainera, atzera eta aurrera egiteko aukera daukazu, benetakoan ez bezala. Horrek, pixka batean behintzat, mundu errealeko loturetatik askatzen zaitu.

**Ipuin batzuren salbuespenarekin, lehen literatur lana duzu. Zergatik hautatu duzu hegaldi bat eta bertako hainbat pertsonaiaren barne gogoetak, bizipen eta ezinak?**
Dena toki bakarrean eta denbora-tarte mugatu batean gertatzea nahi nuen eta, horretarako, hegaldi bat primeran zetorkidan. Abioiak hermetikoak dira, nolabait. Wifiak abioi guztiak inbaditu bitartean, hegaldietan egunerokotasunetik deskonektatuta egotera behartuta gaude. Airean denbora eten egiten da, lurrean daudenekiko harremanetan, gutxienez. Eta horrek aske sentiarazi ahal zaitu edo kontrakoa, buruari eraginarazi. Zazpi pertsonaiek hori partekatzen dute: pentsamenduak itzali ezinik dabiltzala. Horren inguruan hitz egin nahi nuen nobelan: pentsatzen dugun guztiaren inguruan, gauzei ematen dizkiegun buelten inguruan eta horrek sortzen dizkigun onura eta kalteen inguruan.

**Pertsonaia bakoitzak hainbat atal ditu, laburrak horietako asko, sekuentzia modura. Antzerkitik gertuko teknika eta testua dirudi. Zergatik?**
Zazpi pertsonaia nagusi ditu nobelak. Bakoitzak bere gatazka pertsonalak izan arren, ez nuen zazpi istorio isolatuz osatutako lan bat egin nahi. Hegaldia bakarra da. Bilatzen dudana da irakurleak, hegaldiak aurrera egin ahala, minutu bakoitzean zer gertatzen ari den ikusten joatea. Bera ere bidaiari bat gehiago izatea. Pertsonaia bakoitzaren istorioak nola eboluzionatuko duen jakiteko, liburuaren amaierara iritsi beharra dago. Bestalde, pertsonaien arteko interakzioek eragina dute bakoitzaren kontakizunaren nondik norakoetan. Hortaz, ala behar zuen. Baina egia esan, antzerkizalea naiz eta ilusio handia egingo lidake *Zendabalitz* oholtza batean ikusteak.

**Egungo aparailu eta aplikazio teknologikoen aipamenak, onomatopeiak, maiuskulen erabilerak… Horrela ateratzen zaizu idazketa edo istorio jakin honi erantzuten dio?**
Istorio jakin honi ondo zetorkiola uste dut. Irakurleari jolas moduko bat planteatu nahi izan diot. Pertsonaiaz pertsonaia saltoka ematen da hegaldiaren eta euren istorioen berri. Hortaz, hari-mutur guztiak lotzeko adi egon behar du irakurleak: bidaiari bakoitza non dagoen kokatuta, zeinen artean diren elkar-eraginak, kontzientziaren ahotsa ari den hizketan edo ez… Horregatik maiuskulak, letra lodiz idatzitako hitzak, onomatopeiak… Joko itxurako irakurketa hori sustatzeko.

**GORKA EROSTARBE**
Kazetaria

**Elkarrizketa osorik:**
**http://bit.ly/zendabalitz**


RUTA SEPETYS,
LA AUTORA
QUE DA VOZ
A LAS PERSONAS
OLVIDADAS
POR LA HISTORIA




ESPERANZADORA,
RIGUROSA
Y RESILIENTE

MAEVA

# ÁLVARO ARBINA

**_Los solitarios_ (Ediciones B, 2020) no es un thriller al uso. Sus más de quinientas páginas destilan suspense, aventura, psicología, y mucha verdad. Álvaro Arbina (Gasteiz, 1990) ha vertido en ellas una historia circular capaz de mantener en vilo a cualquier lector. Un lugar blanco y recóndito, un asesinato colectivo y una carismática pareja de detectives son los componentes de una narración de gran calidad.**



FOTOGRAFÍA: LANDER ARBINA

> *“La comodidad no es buena para escribir, hay que saber gestionarla”*




**LOS SOLITARIOS**
Álvaro Arbina
EDICIONES B

**Ha apartado la narración histórica para dar el salto al thriller. ¿Por qué el cambio?**
Siempre iré allá donde haya una gran historia por contar. Algo poderoso que me llame, que me coja con tan desmesurada fuerza que durante dos o tres años sea incapaz de dejarlo. El género, el tono, el estilo, los escenarios, la época, sólo son instrumentos, piezas con las que jugar en el inagotable tablero de lo literario. Ayer fue novela histórica, hoy thriller contemporáneo, mañana quién sabe. Entiendo que hay que clasificar las novelas, ordenarlas por tipo, pero en mi mundo no existen los géneros, simplemente existen historias diferentes.

**La historia ocurre en uno de los lugares más remotos del mundo, y está cubierta de nieve. ¿Por qué se decantó por esta localización y este paisaje?**
Quería un lugar donde el ser humano no hubiera situado ninguna bandera. Un lugar sin nombre, donde la Tierra aún es como cuando se creó. Cada vez nos rodean más edificaciones, más personas y más dispositivos y realidades virtuales. Nos hemos olvidado de en qué lugar vivimos. No es el planeta Humano, es el planeta Tierra, que lleva aquí mucho más que nosotros. Si ella fuera nuestra madre y tuviera treinta años, nosotros aún estaríamos naciendo, sacando la cabeza de su vientre. Un thriller bien contado puede ser una cápsula para contar muchas cosas. En este caso, para adquirir conciencia de dónde estamos y de quiénes somos: un milagro y una maravilla tremendamente pequeña y vulnerable.

**¿Cómo llegó a esta trama?**
El proceso de escritura de una novela, como cualquier creación artística, es siempre un misterio. Si realmente soy sincero conmigo mismo, no tengo ni idea de cómo la he creado. Tendría que revisar mis libretas y mis anotaciones, y tratar de descifrar cómo llego a cada idea, y cómo cada idea surge por otras ideas, y a su vez las modifica, y así constantemente, hasta que al final dices: basta, ya no sé si estoy cambiando la historia para mejor. A veces, empezar a escribir una novela es como empezar a leerla. Siempre me pongo nervioso cuando empiezo una historia. Es como abrir una puerta a una pequeña casa. Abres la puerta, entras. No sabes lo que te vas a encontrar.

**En una entrevista anterior confesaba que escribía por las noches. ¿En qué momentos ha gestado *Los solitarios*?**
Ahora tengo la suerte de poder dedicarme a la literatura. Mis hábitos han cambiado desde que escribí mi primera novela, que compaginé con los estudios y con mis primeros trabajos como arquitecto. Ahora me levanto y escribo, como en cualquier otra jornada laboral. Tener todo el día para escribir puede parecer una ventaja, pero tiene sus aristas. La comodidad no es buena para escribir. Hay que saber gestionarla. Uno tiene que estar lúcido y en tensión.

**TERESA SALA**
Periodista

La entrevista completa:
http://bit.ly/los-solitarios



# RELATOS QUE HABLAN DE NUESTRAS MOCHILAS

**_Mendi-joak_, el último libro de Aingeru Epaltza, autor muy conocido y reconocido en el ámbito de la literatura en lengua vasca, llega ahora a las librerías en castellano, bajo el título de _Mal de altura_. Se trata de una colección de relatos cuyo hilo conductor es la afición al montañismo. Pero, en realidad, el monte no es más que un escenario, una excusa, para hablar de "la mochila" que llevamos encima.**




**MAL DE ALTURA**
Aingeru Epaltza
TXERTOA

Hay personas que, a la primera ocasión, se calzan las botas y, como las cabras, tiran al monte. Es esa pasión, a menudo obsesión, la que sirve de hilo conductor a los relatos que componen *Mal de altura*. "Pero, ojo –advierte el editor–, que no son relatos 'montañeros'. Los crampones, los esquís y demás son poco más que el *atrezzo* de unas historias que reflejan las aspiraciones, desilusiones, prejuicios, temores o momentos de felicidad que subyacen en las relaciones humanas". Es decir, lo importante en estos relatos no es el monte en sí, sino, por utilizar una metáfora del propio autor, "la mochila", todo eso que cargamos a la espalda. Es verdad, sin embargo, que **Epaltza** es una de esas personas afectadas de "mal de altura" y, por tanto, conoce perfectamente el medio. De modo que puede que el monte sea un mero escenario, pero desde luego no es un escenario de cartón-piedra.

La presentación de este libro fue una sorpresa. No porque se tratase de una colección de relatos, género que el autor ha cultivado con fruición, sino porque llegaba tras casi una década enfrascado en la monumental y celebrada trilogía de novelas históricas *El reino y la fe*. "Concluido aquel proyecto, sentí la necesidad de oxigenarme –confiesa–, retomé mi afición por el monte y, casi sin darme cuenta, escribí tres o cuatro relatos ambientados en ese marco. Y decidí seguir".

La sensación de aire renovado ha quedado reflejada en el libro. **Epaltza** no ha sido nunca un autor complaciente, sino todo lo contrario, y también en estas historias pone el dedo en la llaga sobre cuestiones como las relaciones de pareja o familiares deterioradas, el consumismo, la insolidaridad o el machismo. Pero lo hace a menudo con mucho humor, un humor nada inocente, es verdad, pero que contribuye, sin duda, a que los relatos resulten refrescantes.

Como lo hace la variedad de los mismos, entre los que encontramos desde un genuino *thriller* "de bolsillo", casi paródico, a relatos de estructura más sencilla y apenas unas páginas. La variedad afecta también a los puntos de vista narrativos y, muy especialmente, a los personajes, de prácticamente todas las edades y condiciones. Reconoce que este de la variedad de personajes es un aspecto que ha trabajado especialmente. "Me preocupaba que todos se pareciesen a mí, un hombre en torno a los sesenta", sonríe.

*Mendi-joak* ha devenido en *Mal de altura* gracias a la traducción de **Angel Erro**, quien, con su reconocida solvencia, brinda al lector o la lectora la oportunidad de disfrutar de estos relatos, repletos de matices, ahora también en castellano.

**KARMELE URRUTIA**
Periodista



# Liburu azokak,

## oxigenoa eta zerbait gehiago





ARGAZKIA: CULTURGAL

Bizigarri hutsak izaten dira liburu azokak euskal kulturgintzarentzat. Azokek, Durangok bereziki baina ez bakarrik, presentzia soziala ematen diete liburu eta diskoei; hedabideen arreta pizten dute, kultura lehen planoan paratzen dute eta salmentak errazten dituzte. Beti kili-kolo dabilen sektorearentzat ez dira pizgarri makalak. Baina liburu eta disko arloetarako ez ezik, ekonomiarentzat ere emankorrak dira. Durangoko Azokaren inpaktua neurtu dute, eta emaitzak zer pentsatua eman du: sei milioi euroko eragin ekonomikoa aitortu diote.

Urteari erreparatu ezkero, asko dira argitalpenei lotutako azokak: liburu azokak hiriburuetan eta herri askotan, liburu eguneko saltokiak kalean, Iruñeko argitalpen-azoka, Literaturia bezalako literatura-jaialdiei lotutako azokak, liburu azoka jaioberriak, Ziburukoa kasu, eta Sarako Idazleen Biltzarra eta Durangoko Azokaren gisako ibilbide luzeko hitzordu itzaltsuak.

Azokek zer ekarpen egiten dioten liburugintzari eta gizarteari agerian gelditu da Siadecok Durangoko Azokaren gainean osatu duen ikerketan. Euskal Herriko liburu eta disko azokarik garrantzitsuena izanik, emaitzak hari dagozkio, ez beste ezeri, baina argia eman, ematen du.

Durangoko Azoka erreferentzia nabarmena da euskal kulturgintzarako. Liburuak, diskoak, egileak, argitaletxeak eta, oro har, kultur eragileak ezagutzera emateko leku egokia da. Ikerketak erakutsi duenez, eragileek eurek garrantzi handiago aitortzen diote arlo horri salmentei baino: euskal kulturaren bilgunea da; kultur jardunaren emaitzak erakusleiho bikainean jarri ditu;hedabideetan oihartzun handia lortu du...

Euskal kulturgintzak nekez eskuratzen du hedabide handien arreta. Praktikan, sarritan, bazterrekotzat jotzen da, are gehiago euskara hutsezkoa denean. Durangoko Azokak, ostera, lehen planorako ateak ireki dizkio. Normaltasuna beharko lukeena egun batzuetako legea baino ez da, baina hain da bizigarria...

Salmentak ere garrantzitsuak dira, zer esanik ez. Lau egunetan urteko fakturazioaren %22 lortu dute eragileek batez beste, nahiz eta hor zehaztu behar den argitaletxeentzat porzentaje hori txikiagoa dela (urte osoko jarduera handiagoa daukatelako) eta autoekoizleentzat, berriz, handiagoa. Edonola ere, oxigeno hutsa kinka estuan dagoen kulturgintzarentzat.

### Eragin ekonomikoa

Gehienetan oharkabean igarotzen bada ere, euskal kulturgintzaren jarduera horrek sektore ekonomiko gehiagori eragiten dizkio ondorio positiboak. Siadecoren txostenak argitara atera du orotara ia sei milioi euroko in-


Marc-Uwe Kling

QUALITYLAND

BIENVENIDOS A QUALITYLAND, UNA SÁTIRA INQUIETANTE, VISIONARIA, HILARANTE Y LLENA DE ACTUALIDAD SOBRE EL FUTURO.






ARGAZKIA: ELKAR

paktua dakarrela Durangoko Azokak. Alde batetik, jakina, liburuak eta diskoak eurak egiteko jarduna dago. Bestetik, Azoka bera eratzea eta muntatzea. Jarduera bi horiek inpaktu ekonomiko zuzena dakarte.

Baina, hori gutxi balitz, Azokak badu eraginik azokatik kanpo ere. Esate baterako, Durangaldean bertan baina Landakoko gunetik kanpo, bisitariek ia milioi bat euroko gastua egin zuten 2018an, batez ere taberna, jatetxe, denda eta ostatuetan. Emaitza ekonomiko hutsetik begiratuta ere, kultur jarduerak inguruan modu positiboan eragiten duela duda gutxi, beraz.

## Nolako bisitariak

Siadecoren txostenak bisitari horien profila zehazteko ahalegina egin du. Emakumeak gizonak baino gehiago joaten dira Durangoko Azokara (%58). Adin tarte ohikoena 25-45 urte artekoa da eta unibertsitate ikasketak dauzka %67ak. Gehienak Bizkaitik (%48) edo Gipuzkoatik (%37) heldu dira eta %92 euskaldunak dira (zaharrenen artean, %80; gazteenen artean, berriz, %96).

Bisitari fidelak izaten dira, hamarretik bederatzi egonda baitago lehenago Azokan, eta bikotekidearekin edo lagunekin joaten dira.

Azokan bertan, 50 euroko gastua egin zuten, batez beste, 2018an. Baina, horrez gain, ia erdiak Azokan ikusitako liburua edo diskoa aurrerago erosiko du. Hortaz, eragileek eurek igarri duten bezala, erakusleiho eragingarria da. Batez beste, azokatik kanpo urtean zehar 2,6 liburu eta 1,3 disko erosten dute euskaraz. Hala ere, kopuruak xehe-xehe ematea ere merezi du, argazkia zehatza izango bada: bostetik bik ez du erosten euskal liburuik Azokatik kanpo.

**TOMAS ZABALLA**
Kazetaria

## *Sarako Idazleen biltzarra*

Sarako Idazleen Biltzarra 1984an antolatu zen lehen aldiz, Pazko astelehenarekin, eta ordutik data berari eutsi izan dio. Liburu azoka bada ere, bere ezaugarri nagusiena da idazleen bilgune dela eta idazleak zein argitaletxeak direla mahaiak jartzen dituztenak; 150 idazle inguruk hartzen du parte bertan. Idazlea irakurlearekin harreman zuzenean jartzen du Sarako Biltzarrak. Biltzarrean liburu aurkezpenak, erakusketak eta beste hainbat ekitaldi antolatzen dira.

2016tik, Sarako Biltzarra elkartea da antolatzailea eta azken urteotan bi egunez antolatzen da. 2020ko edizioa apirilaren 13 eta 14an izango da.

Asteleheneko jardunaldia publiko zabalari irekita dago eta asteartea, berriz, profesionalei begira antolatu da: mediateka, argitaletxe, liburu denda, liburutegi eta idazleentzat.

Aurten, Saran bertan, Idazleen Biltzarraren aurretik, ekimen berri eta berritzaile bat egingo da, *Ikusi Mikusi*. Haur eta Gazte Literatura Azoka sortzea du helburu ekimenak, eta lehen aldiz apirilaren 3 eta 4an egingo da. Mugaren bi aldetako hainbat kultur eragile eta erakunderen artean antolatu da, Euskal Herri osoko haur eta gazteei begira, eskola zein familia giroan literaturaz eta liburuaz gozatzeko.






ARGAZKIA: AITOR ARANA

# KARLOS GORRINDO

**_Funanbulistaren beldurra_ (Erein) nobelarekin itzuli da Karlos Gorrindo. Oraingoan gernikar idazleak bere bizitzako atal luze bat hartu du hizpide. Hamasei urtetik gora egin zuen preso Gorrindok eta sasoi hartako esperientzietatik abiatu da, denborak ematen duen talaiatik begiratuta, kontakizuna lehen pertsonan ehuntzera.**




**FUNANBULISTAREN BELDURRA**
Karlos Gorrindo
EREIN

**“Preso egon denaren gogoa kartzelara itzultzen da beti”, idatzi zuen Sarrionandiak. Zurekin egon zen preso. Eta zure gogoa ere hara itzuli da, liburu honetan zure kartzelaldia kontatzen duzu eta. Zergatik?**
**Joseba**ren poema bat da zuk aipatzen duzun zati hori. Bost urte izan ginen batera hainbat kartzelatan: Karabantxel, Puerto, Herrera… **Joseba** beti izan dut gogoan, ni idazle hargatik naizelako hein handi batean. Nire liburu askotan agertzen da era zuzen edo zeharka kartzelaren aipamena. Ebitaezina izan da nire bizitza literarioan. Denbora igaro behar izan da, haatik, langintza honetan hasteko. Denboraren joanak ematen duen objetibotasun puntu hori bilatu nahi izan diot testuari, nahiz eta zaila izan objetiboa izatea nobelan norbera denean protagonista nagusi. Urteetan izan ditut lagunak atzetik kartzelari buruzko liburua idatzi behar nuela esaten. Agian neure burua prest ikusten ez nuelako ibili naiz luzamendutan. Gaur arte.

**Urte asko egin zenituen preso. Bizipen eta esperientzia ugari. Liburuan zelan jaso dituzu? Zer daukate testigantzatik eta zer literaturatik?**
Uste dut nire azken liburu honek dena duela literaturatik. Idatzizko adierazpen oro da literatura. Liburuaren lehen bertsioa idatzi nuenean eta lagunei irakur zezaten eman, iritzi kontrajarriak jaso nituen. Azkenean **Joseba**k hauxe esan zidan: “Testigantza liburu bat idatzi behar duzu, Karlos”. Baina nire asmoa ez da izan soil-soilik testigantza liburu bat idaztea. **Atxaga**k esan berri du, beraren azken liburuaren aurkezpenaren abaroan, berak bi esku erabili dituela liburua idazteko: “Batarekin oroimena/testigantza baliatu dut idazteko, eta oroimenak huts egin didanean, beste eskuarekin irudimena baliatu dut idazten jarraitzeko”. Nik, **Atxaga**k bezala, antzeko prozesua bizi izan dut neure nobela taiutzean.

**“Norberaren egiak besteenekin osatzen dira”, berriro ere Sarrionandiak, hitzaurrean. Zein dira liburuan dakartzazun egiak?**
Neure egia. Egia txikiak, egia absolutua osatzen dutenak. **Mikel Antza**k dio egia ez dela existitzen. Egia fikzio bezala baino ezin dela kontatu. Norberaren esperientzia bitalaz kontziente izan eta hori kontatzea egiaren kontzeptutik hurbilen dagoena dela uste dut. Gainera, nire asmoa ez da izan nobelak garatzen duen harian irakurleak sinestea edo ez. Nobela honekin nik ez dut moralizatu nahi izan. Kontzientziak ikuspegi morala du, jakina, eta egiak zer esanik ez. Nik bizi izandako esperientzia kontatu dut nobela honetan, literaturaz jantzia, eta gogoko ditudan abestiez apaindua.

**Ihesaldiak, barne zatiketak, jipoiak, gose grebak, zigorrak, euskara eskolak, eztabaidak, heriotzak... Espetxearen aurpegi guztiak islatu dituzu...**
Hamasei urte eta piku kartzelan izateak denbora ematen dizu zuk aipatu dituzun horiek eta gehiago ere esperimentatzeko eta bizi izateko.

**Zure bide propioa urratu duzu eta lehen pertsonan kontatu duzu. Liburu heterodoxoa dela esango zenuke?**
Ez dakit liburu heterodoxoa izatea zer den, egia esan. **Inazio Mujika**k ere aipatu dit heterodoxoarena. Hau da, ortodoxoa izatea litzateke ezarrita dauden arauak jarraitzea, zuzena izatea eta idazle gehienek darabilten bidea jarraitzea. Heterodoxoa litzateke disidente izatea, arraroa, desberdina. Nik neure esperientzia bitalean oinarritutako nobela idatzi dut eta nahi dudan bakarra da irakurlearen gustukoa izatea.

**Zer izan da idazteko zailena?**
Egia aitortu behar badut, liburua idatzi ahala, negar asko isuri dut bidean. Hunkitu egin naiz, poztu, tristetu, haserretu, mindu, herra sentitu dut, sentimendu eta emozioak ibili zaizkit barrunbean dantzan. Katarsi baten antzeko esperientzia bizi izan dut, liberazioa. Nobela tristea dela esan zidan **Luigi Anselmi**k. Errealitate jakin baten isla baino ez da nobela hau. Tristea bai, gogorra ere bai, baina herri bezala, gure iraganaren atal baten kontakizun mingarria bezain hausnargarria da nobela.

**Norentzat idatzi duzu?**
Uste dut idazleak ez duela inoiz buruan irakurle jakin bat. Idazlearen helburu nagusia da idatzi duen testua beraren gustukoa izatea. Harro sentitzea sortu duenarekin. Gero dator irakurle balizkoa. **Joseba**k esan zidan: “Zer nahi duzu zuk, berrogeita hamar bat irakurlek irakurtzea zure liburua ala bost milak? Idaztea ez da jardun erraza, dibertigarria, gogorra da”. Hauxe esperimentatu dut nik liburu hau idaztean. Behin eta berriro berridatzi dut testua. Etxe bat eraiki dut adreiluz adreilu. Hormak, gelak eta leihoak egin dizkiot. Eta gustuko ez nuena aldatu, orraztu, birkokatu, horretxetan eman dut denbora gehien. Ni oso gustura geratu naiz emaitzarekin.

**HEKTOR ORTEGA**
Kazetaria

Elkarrizketa osorik:
http://bit.ly/funanbulistaren_beldurra

# MUNDU BAT MOTXILAN
## Alex Txikonen me*n*ditazioak




**MUNDU BAT MOTXILAN**
**ALEX TXIKONEN MENDITAZIOAK**
Unai Ormaetxea
SUA EDIZIOAK

Zerk egiten dizu *tilin*? Zein da irrika hori? Ni ere –artean, ez nekiela– halatsu abiatu nintzen bizialdian, behin begiek dir-dir egin zuten arte Gorbeiako mendi magalean. Orduan ohartu nintzen bizitza bi eratara bizi litekeela; dena mirakulua balitz bezala, edo ezer mirakulua ez balitz bezala. Eta horrela, jakin minaren jostakin, bultza egiten duen argi horren atzetik, mendia bilakatu zen nire irla jostalaria; mundu magikoa. Errege txiki bat naturaren erresuman: noiznahi arrano, noiznahi suge, noiznahi lore…

Harrezkero, ehundaka, milaka… izan dira bidean egindako tontorrak eta lagunak, gailurra, beti ere, bidea bera izan delarik. Motxilan daramat nire GR propioa; elkarrekintzan egin dugun naizen hau: Alex. Hargatik, orduan besteko ilusioarekin idazten dizuet munduaren zerutik; Everestik. Eta, nire izateko gonbitea luzatu, gauzatu bako betiereko erronka honetan.

Batera bizi nahi izar festak zein biharamun beltzak? Zatoz, ba, nire lepotik, zauriak zaintzeko beste manera batzuk ezagutzera; izarrak interpretatzera, hodeiak klasifikatzera... bide bereziak eta bereiziak urratzera.

Bidea, negu gorrian, sorpresa eta lezio bilakatuko zaigu. Mendiak berdinduko gaitu, eta benetakoa erakutsi eta irakatsi: laguntasuna eta bakardadea, sufrimendua eta zoriontasuna… Mendiaren bitartez bidaiatuko dugu norberaren bidegurutzeetan. Dena izango da hizpide bidea urratu ahala, etapaz etapa, kanpamenduz kanpamendu, geure buruak esploratu eta bizipen ontzia betez. Behin garenaz topo egin eta bizitzaren giltzarriekin bat egitean, motxila bete meditazio eta menditazio lepo gainean dugunean, elkar begiratuko dugu atzera. Eta, bizipenak bizipen, pasadizoak pasadizo, eder ikusiko dugu gure Everestaren tontorretik, han behean, lautada luzezabal bilakaturik gure bizialdiaren bailara. Han izango gara biok, ene bidelagun; nire isilpekoen gordailu.

Vigotski, Jodorowsky, Chomsky... Kavafis, Eleanor H.Porter, Elorriaga, Virginia Woolf... Shipton, Mallory, Hillary, Messner... Madame de Zumeltzu, Gerlinde Kaltenbrunner, Elisabeth Revol, Suku Maya... Txindoki, Hiru Erregeen Mahaia, Mont Blanc, Pamir, Himalaia, Katmandu, trekking, Khumbu... Martin Zabaleta, Alexey Bolotov, Iñurrategi, Ochoa de Olza, Urubko, Juanito, Edurne, Simone Moro, Ali Sadpara, Kilian Jornet... 3.gizakia, TDH, 'nia'... aizkora, base saltoa, Al filo de lo imposible, apustuak, Txikon Extrem... bertsoa, olerkia, Berri Txarrak... khata, Lama, Buda, Brahma... SOS Himalaia, jet-stream...

Dena bukatu eta hasten den lekua da hau: mundu bat motxilan. Prest espedizio honetan nire bizkarzain –motxila, alegia, motx– izateko? Bizitza bizitzeko? Euskara munduko sabaira eramateko? Emozionatu eta emozionarazteko? Erdu, ba, lotu sokara, esperientzia kitzikagarri honetan.

**UNAI ORMAETXEA**
Idazlea



elkar fundazioa

BIZIPOZA

ELKARTASUNAREN AUZOLANA

Bizipoza irabazi asmorik gabeko **gizartegintza egitasmoa** da: izaera bereziko gaiak lantzen dituzten eta haur eta familien ongizatea helburu duten elkarteei laguntza afektiboa eta materiala eskaintzea du xede. Elkarte, haur eta familia hauek transmititzen dituzten baloreak jasoaz euskal gizartea hezi eta aberastuz, **euskaraz elkartasuna sustatu nahi dugu** auzolanaren bidez.
Nahi baduzu zuk ere egin dezakezu
zure ekarpena bizipoza zabaltzeko.

Bizipoza elkartea, gaur egun, izaera bereziko gaiak lantzen dituzten Euskal Herriko **35 elkartek**, **22 bazkidek**, **babesleek** eta **boluntario sare batek** osatzen dute.

Bazkideak dira euskalgintza, hezkuntza eta euskal kulturgintzako hainbat eragile (AEK, Algaraklown, **elkar** Fundazioa, Hik Hasi, Ikastolen elkartea, Irrien Lagunak, Katxiporreta, Mondragon unibertsitatea), proiektuan parte hartzen duten gizartegintzako elkarteetako zenbaitekin batera. Babesle eta boluntario sarea osatzen dute hainbat gizarte eragile, instituzio, enpresa eta kooperatibek. Eta elkartean oinarria, berriz, gizartegintzako elkarteak dira, haiek baitira izaera bereziko gaiak lantzen dituztenak, eta laguntza ematen dutenak. Honako hau da elkarte horien zerrenda:

Ademgi, Afesta, Agipase, Ampgyl, Arnasa, Aspanif, Aspanogi, Aspanovas, Banaiz Bagara, Beroa, Biak Bat, Bihotzez, Chernobilen Lagunak, Dravet, Etiopia Utopia, Fsdpv, Gehitu, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa, Gure Nahia, Gure Señeak, Guztiok, Hiru Hamabi, Juneren Hegoak, Kale Dor Kayiko, Mindara, Naizen, Ndank-ndank, Nuala, Oporrak Bakean, Pausoka elkartea, Sanfilippo Umeen Euskal Elkartea, Seaskako integrazio batzordea, Super Hache, Ulertuz eta Ume Alaia.

